



EUSKADIKO
PARKE
TEKNOLOGIKOAK

KODE ETIKOA

Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, SA, Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, SA eta Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa - Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, Saren Administrazio Kontseiluek onetsia.

DATA: 2022ko urtarrila





1. SARRERA

Etika Kode hau Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia, SA, Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologia Elkartegia, SA eta Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa - Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, SAREN Administrazio Kontseiluak (aurrerantzean, Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea edo Sozietateak) onartu du, 2021eko abenduan, hiru helbururekin:

- a. 2011ko maiatzaren 10ean Eusko Jaurlaritzak onetsitako "Gobernuko kideen, goikargudunen, behin-behineko langileen eta Euskadiko sektore publikoko gainontzeko zuzendaritza-karguen Etika eta Gobernu Onaren Kodean" ezarritakoari eustea.
- b. 2013ko maiatzaren 28an onetsitako "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunak eta behin-behineko langileak Etika eta Jokabide Koderak" egokitzea.
- c. Sozietateentzat jasotzea eta egokitzea 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatu egiten baita Zigor Kodea eta ezartzen baita pertsona juridikoen erantzukizun penala, euren ordezkari eta administrariak euren izenean egindako delituengatik ez ezik, baita kontrol-eta prebentzio-neurri ezagatik enplegatuek egindako delituengatik ere.

2. XEDEA

Etika eta Gobernu Onaren Kodearen xedea da pertsona guztien (enplegatuek eta zuzendaritza-kideak) portaerak zuzendu behar dituzten printzipioak eta arauak ezartzea, euren eginkizunak betetzeari eta harreman profesionali dagokienez, legez ezarritakoaz haratago doan gardentasun- eta eraginkortasun-esparruan.

3. APLIKAZIO-EREMUA

Etika Kode hau enplegatu, zuzendaritza-kide eta administrazio-organoetako kide guztiei aplikatzekoa da, baita Sozietateen langileen artean sartuta ez dauden langile edo kolaboratzaileei ere.

Administrazio Kontseiluak babesten du Kode hau eta **Batzorde Etiko edo Betearazleak** gainbegiratzen du Kodea betetzen dela. Sozietateei zerbitzuak ematen dizkieten enpresa edo pertsona azpikontratatuak kontratu bidez eskatuko zaie Kodea betetzeko.

Sozietateek publikoki hedatuko dute Etika Kode hau eta ahaleginduko dira haren hornitzaile, azpikontratista eta kolaboratzaileek printzipioak euren gain har ditzaten.

Sozietateak osatzen dituzten pertsonak SPRI Taldeko sozietateetako Administrazio Kontseiluko kide ere badira, eta sozietate horren Administrazio Kontseiluaren Araudian ezarritakoa bete beharko dute (Kode Deontologikoa).



Era berean, Taldekoak ez diren sozietateen Administrazio Kontseiluetan parte hartzen badute, dokumentu honetan jasotako antzeko printzipio eta balioak dituzten etika-kodeak hartzea sustatuko dute.

4. ONESTEA ETA BETETZEA

Plantillan enplegatu gisa sartzen direnek edo Sozietateen parte direnek Kode hau jaso eta berariaz onetsiko dute.

Langile guztiak **derrigorrez bete** behar dituzte Kode honetan jasotzen diren jokaerak, Sozietateetan egiten duten lanaren jardun profesionalan. Bestalde, Kodea betearazi egingo da, eta, hala badagokio, Kodea betetzen ez dela salatuko da. Kode hau **betetzen ez duenak zigorra jaso ahalko du**, indarrean dagoen arautegiaren arabera, arau-hausleak izan ditzakeen beste erantzukizun batzuk alde batera utzi gabe.

Batzorde Betearazlea dute Sozietateek, Etika Kodearen aplikazioaren ondorioz sortutako eraginak izapidetu eta ebazteko, bai eta egindako salaketak bideratzeko ere.

Kode honen arauak hautsi edo bete ez direla adierazten duten jokaeren berri duen edozein enplegatuk salaketa jar dezake isilpean. Horretarako mezu bat bidali ahalko du helbide elektronikoko honetara:

cumplimiento@parke.eus

Jasotako salaketa guztiak **isilpean** erabiliko dira.

5. SOZIEATEEN PRINTZIOAK ETA BALIOAK

Sozietateak osatzen dituzten pertsona guztiak ulertu eta bete beharko dituzte Kode honen igurikimenak, laneko inguruan eta negozioaren esparruan eduki beharreko jokabideari dagokionez. Sozietateen jarduera honako printzipio hauetan oinarritzen da:

a. BALIO ETA PRINTZIO DEMOKRATIKOAK ERRESPETATZEA

Kode honi lotutako pertsonak berdintasun, askatasun, justizia eta aniztasun politikoaren printzipioak betetzen direla zainduko dute euren lanaren jardunean.

Euren portaerak giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatuko ditu guztiz.

Ez dute jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi, sexu-joera edo bestelako egoera pertsonal, politiko edo sozialen batengatik diskriminazioa sor dezaketean jarduerarik egingo.

Tolerantzia jokatu dute, eta aniztasuna sustatuko dute euren jardueretan. Horrek esan nahi du forma kultural, politiko eta sozial guztiak erabat errespetatuko dituztela, betiere giza eskubideak errespetatzen badituzte eta indarkeriarik erabiltzen ez badute.

b. INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA

Ingurumena babesten eta lurraldearen zentzuzko antolamendu jasangarriaren alde egiten duten politikak eta jarduerak sustatuko dituzte Sozietateek beren jardueraren eremuan.



Ingurumenari buruzko legeria zehatz-mehatz errespetatuko da, prozesu eta teknikarik egokienak aplikatuko dira jardueraren arriskuak identifikatzeko, jarduerarekin loturiko ingurumen-alderdiak minimizatzeko eta kontrolatzeko (hondakinak sortzea, isurketak eta atmosferarako emisioak) eta zerbitzuak ematerakoan sor daitekeen ingurumen-erantzukizuna nork bere gain hartzeko.

Ingurumenarekin hartutako konpromisoa betez, **Ingurumen Politika** ezarri dituzte Sozietateek. Enplegatu, zuzendaritza-kide eta Administrazio Organoko kide guztiek bete behar dituzte politika horiek.

c. OSASUNAREKIKO ETA SEGURTASUNAREKIKO KONPROMISOA

Sozietateek beharrezko jokabide-planak ezarriko dituzte, haien jarduerarekin loturiko arriskuak behar bezala kudeatu eta arintzeko. Plan horiek aldiari behin berrikusiko dira, eta beharrezko baliabideak emango dira planei eusteko eta haiek hobetzeko.

Jarduera gauzatzean istripuak saihestuko dira eta segurtasuna bermatuko da, Sozietateen jarduerarekin bat. Enplegatu eta kolaboratzaileei prestakuntza eskainiko zaie zereginak egoki gauza ditzaten, eta segurtasunari emango zaio lehentasuna esparru guztietan. Beharrezko baliabideez hornituko zaie aipatu segurtasuna bermatzeko.

Osasunarekin eta segurtasunarekin hartutako konpromisoa betez, **Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana** ezarri dute Sozietateek.

d. GARDENTASUNA, OBJEKTIBOTASUNA ETA PROFESIONALITASUNA, JARDUERA GUZTIAK GAUZATZEAN ETA INTERES-TALDEEKIKO HARREMANETAN.

Euren arteko barne-harremanetan zein hirugarrenekin dituzten harremanetan, Sozietateek, haietako langileek, kolaboratzaileek, zuzendaritza-kideek eta administrazio-organoei etika, zintzotasuna, profesionaltasuna eta gardentasuna izango dituzte oinarri:

Debekatuta dago datuak, idazpenak eta kontabilitate-eragiketak faltsutzea, ezkutatzea edo simulatzea, baita kontabilitate bikoitza edukitzea ere edozein ordainketa saihesteko edo legez kontrako onurak lortzeko, Ogasun Publikoaren edo Gizarte Segurantzaren kalterako.

Kontratututako eragiketen kontabilitatea zehatza eta zorrotza izango da, eta irizpide berbera erabiliko da beharrezko artxibo eta erregistroetarako. Kontabilitateaz arduratzen diren langileak derrigorrez eman beharko dute kontabilitate-informazioa, ondarearen eta Sozietateen egoera finantzarioaren irudi leialarekin bat etorriz.

Unean-unean egokitzat hartzen diren barne-kontrolak eta kudeaketa-sistemak ezarriko dira, informazio finantzarioaren fidagarritasuna eta organizazioaren erregistroen zehaztasuna bermatzeko.

Bidezko lehia zintzorako bide emango da, eta inolaz ere ez dira kaltetuko lehiakide diren banako edo erakundeak. Debekatuta dago lehia-praktika desleial oro, eta lehiaren defentsarako legeak betetzen direla egiaztatzen aktiboki jardungo da.

Hornitzaileekiko edo edozein motatako kontratista edo kolaboratzaileekiko harremanetan inpartzialtasuna eta objektibotasuna izango dira nagusi, eta irizpide zorrotzak ezarriko dira egokitasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta kostea bermatzeko.

Enplegatuek, kolaboratzaileek, zuzendaritza-kideek edo administrazio-organotako kideek ez dute inolaz ere oparirik, gonbidapenik, dohainik, zerbitzurik edo mesederik **onartuko**, baldin eta euren profesionaltasunari, objektibotasunari eta/edo



inpartzialtasunari eragiten badiete, konpromisorik edo mesedea itzultzeko beharrik eragiten badute Sozietateen eta haien inguruaren esparruan, eta/edo iruzurrik, legezkoetasun ezik edo praktika ez-etikorik eragiten badute edo hirugarrenik kaltetzen badute.

Era berean, **ez da inolaz ere eskainiko** oparirik, gonbidapenik, dohainik, zerbitzurik edo mesederik, ez norbanakoei eta ez erakundeei, baldin eta objektibotasunari eta/edo inpartzialtasunari eragiten badiete harreman komertzial edo profesioaletan, konpromisorik edo mesedea itzultzeko beharrik eragiten badute, Sozietateen esparruan, eta/edo iruzurrik, legezkoetasunik ezik edo praktika ez-etikorik eragiten badute edo hirugarrenik kaltetzen badute.

Sozietateak eta bertako langile, zuzendaritza-kide eta administrazio-organoetako kide guztiak **elkarlanean arituko dira agintariekin**, justiziarekin, erakunde publiko arau-emaileekin eta gainerako erakunde publikoekin, modu egoki eta zuzenean, inolako oztoporik jarri gabe eta errorerik edo ez-egiterik eragin gabe. Era berean, dagokion eta/edo derrigorrezkoa den informazioa helaraziko diete lana errazteko.

Sozietateetako enplegatu, kolaboratzaile, zuzendaritza-kide eta administrazio-organoetako kide guztiak **kalitatea, zuzentasuna, profesionaltasuna, gardentasuna eta zintzotasuna** bermatuko dituzte euren lana gauzatzean, ekarpenak egingo dituzte, arriskuak, gabeziak eta/edo hobekuntzak jakinaraziko dituzte, berrikuntzak egingo dituzte, zentzuz eta modu egokian erabiliko dituzte baliabideak, eta Sozietateen datuak babestuko dituzte.

Interes-gatazkak ekidite aldera, Sozietateetako enplegatu, kolaboratzaile, zuzendaritza-kide eta administrazio-organoetako kideek ez dute interes ekonomikorik ez inolako interesik izango, eta ez dute jarduerarik gauzatuko Sozietateekin loturiko enpresa edo instituzioekin. Inguruabar hori gertatuz gero, Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio, behar den legezko aholkularitzarekin batera egoera ebaluatzeko eta dagozkion neurriak hartzeko.

Debekatuta dago, pertsona batek Sozietateetan duen karguaz baliatuz, baliabideak, ahalordeak, eragina edo bestelako erraztasunak erabiltzea **norberaren** edo hurbileko inguruaren **onurarako**. Berriaz debekatuta dago edozein norbanako edo kide Sozietateen izenean edo kontura jardutea, aldez aurreko baimenik gabe, eta baita norberaren edo hurbileko inguruaren onurarako erabiltzea ere izen hori, baliabideak, hirugarrenetik harremanak, posizioa edo eragina.

Jarduera guztiak gauzatzeko eta interes-taldeen harremanetarako ezarritako gardentasun-, objektibotasun- eta profesionaltasun-baldintzak betez, **Interes Gatazken Prebentziorako Politika** eta **Ustelkeriaren Kontrako Politika** ezarri dituzte Sozietateek. Enplegatu, zuzendaritza-kide eta administrazio-organoetako kide guztiak bete behar dituzte politika horiek.

e. ERAGINKORTASUNA ETA ERRENTAGARRITASUN SOZIALA

Eraginkortasun- eta ekonomia-printzipioei jarraikiz jardungo dute Sozietateetako pertsonak, betiere interes orokorraren mesede eta ezarritako helburuak betetzen direla zaintzeko.

Sozietateek bikaintasunarekiko konpromisoa hartu eta sustatuko dute. Kudeaketa aurreratuko ereduaren arabera jardungo dute, eta kalitate eta bikaintasun maila gorena lortzeko helburua izango dute Sozietateek beren lanaren jardunean eta zerbitzuak



ematean. Era berean, berrikuntzaren, garapenaren eta etengabeko hobekuntzaren alde egingo dute, kalitate onena lortzeko.

Sozietateak osatzen dituzten pertsona guztiak **lankidetzan aritzeko prest agertuko dira, profesionaltasunez**, bezeroen igurikimenak ahalik eta hobekien betetzeko. Bestalde, ahalegin berezia egingo dute bezeroen beharrak aldeztu aurretik hautemateko.

f. HAUTAKETA, SUSTAPENA ETA EBALUAZIOA

Ahalmen- eta lehia-irizpide objektiboetan oinarrituta, **hautaketa- eta sustapen-programa** zorrotzak ezarriko dituzte Sozietateek. Plantilla osoak aukera berdina izango ditu bere ibilbide profesionalan, betiere merituen printzipioa oinarri hartuta.

Prestakuntza-planak gauzatzeko konpromisoa hartu dute Sozietateek, enplegatu guztiak beharrezko gaitasuna dutela bermatzeko, eta enplegatu bakoitzaren zereginak eta helburuak zehaztuko dituzte.

g. INTIMITATEA, DATUEN BABESA ETA ISILPEKO INFORMAZIOA.

Enplegatuen eta kolaboratzaileen **intimitaterako eskubidea** errespetatuko da. Sozietateen jarduerarako eta arautegi aplikagarria unean-unean betetzeko beharrezkoa den informazioa mugatuko dira datu pertsonalen eskaera eta erabilera.

Sozietateek beharrezko neurriak hartuko dituzte haien dituzten datu pertsonalen **isilpekotasuna** gordetzeko, eta baita datuak atzitzeko, zuzentzeko, indarririk gabe uzteko eta aurka egiteko eskubidea indarrean dagoen legeriaren arabera erabiltzen dela bermatzeko ere. Hirugarrenen **jabetza intelektuala eta industrial**a babesteko konpromisoa hartu dute Sozietateek.

Sozietateetako enplegatuek zuhertasunez eta profesionaltasunez erabiliko dute eskura duten informazioa, eta isilpean gordeko dute euren lanaren edukia. Nolanahi ere, ez dute inolaz ere informaziorik, daturik edo euren jardunean lortutako dokumenturik euren onurarako erabiliko.

Intimitate-baldintzarekin hartutako konpromisoa betez, **Pribatutasun eta Isilpekotasun Politika** eta **Informazio Sistemak Egoki Erabiltzeko Politika** ezarri dituzte Sozietateek. Enplegatu, zuzendaritza-kide eta Administrazio Organoetako kide guztiak bete behar dituzte politika horiek.

h. ERABATEKO ARDURA, FEDE ONA, EREDUGARRITASUNA

Sozietateen zuzendaritzaren ardura gehigarria da euren ekintzen bidez erakustea arauak betetzearen garrantzia. Horretarako, zalantzarik duten edo arau-hauste posibleen berri eman nahi duten pertsonen esanetara egongo dira. Sozietateak osatzen dituzten pertsonak erabateko ardura izango dute zereginak betetzean, unean-unean indarrean dagoen bateraezintasun-erregimena leialki beteko dute eta euren jokabidea eredugarria izango da gainerakoentzat.

Sozietateek gaitzetsi egiten dute edozein jazarpen fisiko, psikologiko moral edo agintekeria, baita larderiazko ingurua edo pertsonen eskubideak iraintzen dituen ingurua sor dezakeen edozein portaera ere.

Pertsona guztiak dute euren lankideak, nagusiak eta mendekoak zintzotasunez eta errespetuz tratatzeko betebeharra, eta laneko inguru atsegina, osasuntsua eta segurua bermatzeko dute. Era berean, errespetu profesionalan eta elkarlanean oinarrituko dira



Sozietateak osatzen dituzten pertsonen arteko eta enpresa kolaboratzaileekiko harremanak.

i. AUSTERITATEA ETA ZINTZOTASUNA

Sozietateek austeritatez administratuko dituzte esleitu zaizkien baliabide publikoak eta ez dituzte desegoki erabiliko. Era berean, arduraz kontsumituko dituzte baliabideak, eta baimenduta dituzten protokolo- eta ordezkaritza-gastuak mugatuko dituzte.

j. PARTE-HARTZEA ETA INTERES-TALDEEKIKO ELKARLANA. GOBERNU IREKIAREN PRINTZPIOAK

Sozietateen kudeaketa interes-taldeetara bideratzen dela bermatuko da, informazioaren kalitatea, arreta eta emandako zerbitzuak etengabe hobetzeko konpromisoarekin.

Interes-taldeak eskubidea du ematen dituen zerbitzuen funtzionamenduari buruz informazioa jasotzeko eta Sozietateek eskubide hori bermatuko dute legeek ezartzen dituzten mugen barruan. Era berean, eskaera, kexa edo erreklamazioei erantzuteko mekanismo arin eta eraginkorrak bermatuko dituzte.

Sozietateak irekiak eta hurbil-errazak izan daitezen, hizkuntza argi eta ulerkorra erabiliko dute, prozesuak erraztu eta arinduko dira, zerbitzuen sarbide elektronikoa erraztuko da eta arauen zein araupetzeen kalitatea hobetuko.

Bezeroek, enplegatuek edo beste pertsona batzuek emandako datu pertsonalen babesa bermatzeko, jarduera modu eraginkorrean kudeatzeko beharrezkoak diren datuak soilik eskatzeko eta erabiltzeko konpromisoa hartu dute.

Parte-hartzea eta interes-taldeekiko elkarrizketa bultzatuko dute, partaidetzatik eta aholku-eskaeratik haratago. Politiken diseinuan inplikatuko dira, ezagutza eta berrikuntzaren alde egiteko. Horretarako, eskura dauden baliabide guztiak erabiliko dira, telematikoak ere bai.

k. ERANTZUKIZUNA ETA LANKIDETZA

Sozietateak osatzen dituzten pertsonak euren jardueren gaineko erantzukizuna izango dute, eta ez dizkiete besterenduko ez euren lankideei ez mendekoei arrazoi objektiborik gabe. Era berean, maila instituzional guztietan elkarlanean arituko dira, egungo eskumen-esparrua errespetatuko dute, eta interes orokorraren alde egingo dute ahalik eta modurik eraginkorrenean.

Sareko lana eta funtzionamendu egokirako interesekoak diren elkarlaneko egintzetan zein lanetan parte-hartzea sustatuko dituzte Sozietateek.



ETIKA ETA GOBERNU ONAREN KODEAREKIN BAT EGITEKO ADIERAZPENA

2021eko abenduko Administrazio Kontseiluan onetsitako Etika Kodearen edukiaren bertutez, behean sinatzen duenak hauxe adierazten du:

- 1.- Idazpuruan adierazitako Kodearen kopia bat duela.
- 2.- Goian adierazitako datan Administrazio Kontseiluan onetsitako Etika eta Gobernu Onaren Kodea irakurri eta ulertu duela.
- 3.- Kodearen edukiarekin bat egiten duela baldintza guztietan, eta bertan adierazitako printzipioak eta obligazioak betetzeko konpromisoa hartu duela.
- 4.- Kodearen hedapenari eta aplikazioari bide emateko konpromisoa hartu duela.

Eta jasoan egon dadin eta eragina izan dezan, honako hau sinatzen dut(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

Sin.:
(Pertsonaren izena)

EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOEN SAREA